



INDATE BERRI ETXeko ARAU OROKORRAK

Arau orokorrak

Barne araudi honek ostatu atsegin bat izateko arau orokorrak ezartzen ditu, bezeroen arteko harremanak eta instalazioen erabilera, ordutegiak eta moduak arautuz. Derrigorrez bete beharrekoak dira, gai honi buruz indarrean dauden gainerako arauak kaltetu gabe.

Gonbidatuak eta bezeroak errespetuz jokatu dute bai pertsonen bai instalazioen aurrean. Instalazioak behar bezala erabili eta zainduko dituzte norberarenak balira bezala. Debekatuta dago zarata edo bestelako molestiarik eragitea, eskandaluak egitea edo bezeroen edota langileen aurkako indarkeria fisiko edo hitzezkoa.

Indate Berri Nekazalturismoak iraunkortasunaren printzipioan oinarritzen du bere jarduerak, eta, horregatik, bezeroei eskatu nahi die ingurunearekiko eta eskuragarri jarritako baliabideekiko jarrera arduratsua eta errespetuzkoa izatea, bereziki uraren, argindarraren, berogailuaren eta kontsumigarrien erabileran.

DEBEKATUTA DAGO ETXE BARRUAN ERRETZEA, ETA BEREZIKI LOGELETAN.

Ostatuko ordutegiak

Sarrera (check-in): 16:00etatik 20:00etara. Sarrera lehenago egin edo berandu iritsi nahi izanez gero, aurrez abisatu beharko da, eta adostu ordua, ez baitugu 24 orduko harrerarik.

Irteera (check-out): Gehienez 11:00etan.

Iritsi orduko, gonbidatuak check-in-a egin eta erreserbaren ordainketa egingo dute. Ordainketa Bizum bidez, banku transferentziaz, txartelarekin edo eskudirutan egin daiteke.

Sukaldearen erabilera ordutegiak

Gozariak 8:00 - 10:30h.

Bazkariak 13:30 - 15:30h.

Afariak 19:30 - 23:00h.

Sukaldearen erabilera prezioan sartuta dago. Erabilitako ontzi eta tresnak garbitu beharko dira ontzi-garbigailuan. Bezero bakoitzak apal bat izango du hozkailuan eta bere logelaren izenarekin markatutako armairu txiki bat. Terrazan izozkailu bat ere badago eskura.

Irteera egunean, armairua eta hozkailuko apala hutsik utzi behar dira.

Instalazioen erabilera

Etxekeko instalazioen, lorategien eta gainerako espazioen erabilera ostatuko bezeroentzat soilik da. Ezingo da bertara sartu ostatuan ez dagoen inor.

Bezeroak bere erantzukizunpean izango ditu egonaldian eragin ditzakeen kalte guztiak.

Isiltasun ordutegiak:

- 15:00 – 17:30
- 23:30 – 8:00

Tarte horietan ezin da bolumen altuan musikarik, telebistarik edo antzeko soinu-iturri handirik erabili. Gainerako orduetan ere komeni da soinuaren maila neurtzea eta elkarbizitzarako arauak errespetatzea.

Kalteak eginez gero, eragileak kaltearen zenbatekoa ordaindu beharko du berehala, eskudirutan. Taldeen kasuan, erreserbaren arduradunak ordainduko du.

Maskotak

Maskotak onartzen dira soilik aurrez adostutako zenbait logelatan edo apartamentuan, eta eguneko 10 €-ko gehigarria izango du. Gehieneko pisua: 35 kg.

Maskotak ezin dute gune komunetan eta sukalde-jangelan sartu. Kanpoan beti lotuta eta jabearen kontrolpean egon behar dute.

Debekatuta dago maskotek etxe barruan libre ibiltzea, ohetara edo sofetara igotzea eta logela/apartamentuko tresnak erabiltzea. Txertoen ziurtagiria aurkeztu behar da.

Maskotak ezin dira bakarrik utzi, salbu eta egoki neurriko garraio-kutxan eta denbora mugatu batez (gosari, bazkari edo afari garaian).

Debekatuta dago maskotak dutexetan edo eskuoihalekin garbitzea.

Jabeek maskoten jokabidearen eta eragin ditzaketen kalteen erantzukizuna izango dute.

Garbiketa

Iraunkortasun-irizpideei jarraituz, eguneroko garbiketa ohetako arropa antolatzea, zorua garbitzea eta bainugela txukuntzera mugatuko da.

Oheko arropa lau gauetan behin aldatuko da.

Esku-oihal 1 eta bainu-oihal 1 emango dira pertsona bakoitzeko.

Zikin dauden oihalak lurrean edo dutexan utzi behar dira; bestela, garbi daudela ulertuko da.

Garbiketa egiteko, bezeroen arropak eta gauzak armairuetan edo maletetan egon behar dira.

Garbiketa-ordutegia: 10:30 – 13:30.

Garbitegia

Ostalariak garbitegi zerbitzua erabil dezakete, eskaera eginez eta aparteko ordainketarekin: 10 €/eguneko.

Erabilera giltza eskatuta egiten da, eta egunean zehar erabili daiteke.

Etxeak ez du erantzukizunik hartuko arropa galtzeagatik edo koloreak nahasteagatik.

Aparkalekua

Ostalariak ibilgailuak sarrera ondoan eta etxearen beste aldean dauden aparkalekuetan utziko dituzte.

Debekatuta dago bi garaje pribaturen aurrean aparkatzea.

Apartamentuaren arauak

Apartamentuak oheko arropa, eskuoihalak, ile-lehorgailua, bainuko produktoak eta garbiketa produktuak ditu (garbigailurako xaboirik ez).

Egonaldian ez da garbiketarik egingo.

Oheko arropa edo eskuoihalen ordezkapena behar izanez gero, eskatu harreran.

Irteera egunean, hozkailua hustu, garbitu eta itzalita utzi.

Intereseko telefonoak

Ayuntamiento de Aia.....	943 131144
Ayuntamiento de Zarautz.....	943 005109
Oficina de Turismo de Aia.....	943 131144
Oficina de Turismo de Zarautz.....	943 830990
Polideportivo de Zarautz.....	943 005123
Policia Municipal.....	943 005115
Ertzaintza.....	943 538900
Osakidetza.....	943 461111
SOS.....	112
Eusko Tren.....	943 831337
Autobuses.....	943 240114
Taxi.....	943 131952
INDATE BERRI.....	943 133058 - 688784335

Honen bidez gure zerbitzuak hobetzen laguntzeko, eskertuko genizueke zuen iritzia

Escapada Rural, Nekatur eta sare sozialetan partekatzea.